

OÑATIKO JAIXAK 2023 ELKARLANEAN ANTOLATZEKO
OÑATIKO UDALA ETA ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik JOSE MARI BENGEOA LETE jauna, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa Elkartearen (G20435889) izenean aritzeko gaitasuna duena.

Bi aldeek hitzarmen hau egitek o nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau **ADIERAZTEN DUTE** :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute **Artzain Txakur Txapelketa Elkarte** (G20435889) zuzenbide pribatuko elkarte dela, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute. Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Lege Orokorra garatzeko eta 887/2006 Errege Dekretuaren 55. Artikuluak xedatutakoaren arabera; dirulaguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: **interes publikoa**, soziala, ekonomikoa edo humanitariora izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

IV. Interes publikoa (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. 22.2. C atala):

Oñatiko Jaixak 2023ko markoaren baitan, Udalarekin elkarlanean, herriko Elkarteekin zein Talde antolatuen jaietako jarduera kulturalen garapena edo/eta ekitaldi zehatzak antolatzea, herriko jaietan herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

VI. Kontzesioa, arautuko duen hitzarmen bidez egingo da.

ADIERAZPENA

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute eta hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau **HITZARTZEN DUTE:**

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da:

2023ko Oñatiko Herriko jaietan, Udalarekin elkarlanean, herriko elkarteekin, talde antolatuen partaidetza mantendu, suspertu eta indartzen laguntzea, jaietan herritar guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten.

Oñatiko jaietan parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteekin, talde antolatuen jaietako kultur jarduerak diruz laguntzea, jaien antolakuntzan jardueren garapena edo/eta ekitaldi zehatzak burutzeak sortzen duen defizita arintzeko asmoz.

Dirulaguntza hau arautzea.

BIGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu saila.

Hitzarmen honetan zehazten den dirulaguntza aurrekontu hontako partidatik emango da:

Dirulaguntza: zuzena eta ez-izenduna.

Kontu-Saila: 0800.481.338.00.02.(358). Jaietako dirulaguntzak.

Hitzarmenaren zenbatekoa: 11.000€ (Hamaika mila euro).

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmenak urte bateko (2023) iraupena izango du.

LAUGARRENA: Dirulaguntza emateko prozesua.

Dirulaguntza ordainketa zati bakarrean egingo da:

- Dirulaguntzaren %100, hau da , 11.000€ hitzarmena sinatzen den momentuan.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen jarduera/ ekitaldiak honako hauek izan daitezke:

2023.urteko Oñatiko herriko jaiekin bat datozen jarduerak, hala nola: kultur jarduerak, herri kirolak, ikus entzunezkoak, jaialdiak, erakusketak eta abarrekin zerikusia dutenak eta jaietan finkaturiko epeen barruan gauzatzen direnak (irailak 22tik urriak 2ra, biak barne).

Beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atala xedatzen duenarekin bat etorritik gero; hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duten jarduerak sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia dutenak.

SEIGARRENA: Gastuen likidazioa.

Epe muga: 2023ko azaroak 30, osteguna.

Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko du Artzain Txakur Txapelketa Elkarteak:

Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.

Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira aurkeztutako gastuak justifikatzen duten ziurtagiriak. Adibidez, jaso izanaren agiriak elkartearen ziguilarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NAN zenbaki eta sinadurarekin.

Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko- Artzain Txakur Txapelketa Elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak:

Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

ZAZPIGARRENA: Elkartearen bete beharrak Udalarekiko.**BETEBEHARRAK :**

- Hitzarmen hau egiteko arrazoia den jokabideari eustea.
- Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baliokete, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikulua dioenaren arabera).
- Jasotako dirulaguntzaren erabilerari buruzko agiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
- Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatzea.

- Hirugarrenei egindako kalteei erantzutea, eta horretarako, gutxienez, erantzun zibileko poliza kontratatzea , aseguru hori kontratatu duela egiaztatuz.

ZORTZIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako muga baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

BEREDATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Elkarteak hitzarmenean jasotako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behar utz lezake batzordeak, dirulaguntza itzuli beharko lukelarik Elkartea/Taldeak.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-bana irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, adierazitako lekuan eta egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatin, sinadura digitalean zehazturiko datan,

Oñatiko Udalaren izenean
Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Artzain Txakur Txapelketa Elkartearen izenean
Jose Mari Bengoa Lete